

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Eguena / 2002ko abenduaren 5a / 520. zenbakia





**Kanpoko
igerileku
txikia
estali
egingo
dute**

**Otsailerako
igeritarako
moduan egotea
nahi du Udalak**

SANTA MARINA: LANAK IKUSTEKO ZABALIK DOMEKAN/7 • GIMNASIA: LASA ETA GALLEGO, MURTZIARA/9

1. euskal selekzioaren cd-rom jokoa



**eskatu
orain!**

902 010 735
Telefona 24 orduz.


Imajina dezakezun guztia!



Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!



Aukera ezazu taktikarik egokiena



Jokatu:
Munduko Txapelketa,
Lagun arteko partiduak,
sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n
Txilenak, erregateak, jaurtiketak,
sarrera ikusgarriak, golen
ospakizunak...


Giro-soinu aparta,
Ikurrinak harmailetan...

Jokoaren estatistikak

Jokaldi onenen
errepikapenak...

Lau futbol zelai aukeran.

Partiduak egunez, gauez,
euriarekin...



**euskal
selekzioaren bufanda**
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,
72 orduan
bidaltze
gasturik gabe




**35,95
euro**

Jokoa orain erosiz gero,
bufanda eta garraioa

DOAN

ATREBENTZIAEZPADA/ Ze pentsatzen jatzu kanpoko igerileku txikixa tapatzeko erabakixa?



JUAN MARI CERDEIRA
66 urte



BIXENTE MADARIAGA
71 urte



RAMON IRIBEKANOS
67 urte



MARIA ISABEL URKIA
36 urte



GARBIÑE ARRIETA
75 urte



FERNANDO MUJIKA
49 urte

Erabaki nahiko formala pentsatzen jat, ez guztiz, baina bueno... Bestiak itxittu baldin badare, ba, nik uste, igerilekua egunero erabiltzen dabena jungo diela.

Erabaki gogorra pentsatzen jat. Lehen hainbeste kostatu zana iñori kontsultatu barik itxia ez jat bape ondo pentsatu. Eta kanpoko txikixa tapatzia be ez. Beste diru pillla bat gastatuko da.

Ondo pentsatzen jat, batez be egunero ibiltzen dienendako, horretara ohittuta dare-eta. Berrixak egin bittartian badauke nun ibili, ezebe barik egon biharran.

Ondo pentsatzen jat. Ezer ez edukitzia baiño hobe da irtenbide hori. Gaiñera berrixak egittiak nahiko luzeraino joko dau, seguruenik, eta bixen bittartian...

Ni ez naiz sekula juten, baina juten dienendako ona dala uste dot. Negurako ondo dagola pentsatzen jat, baina udarako ez hain ondo. Estali barik zabalik egon biharko litzake.

Irtenbide bat da. Besterik ez badago ondo pentsatzen jat. Horrela, giro txarra egitten dabena bainua hartu nahi dabena aukeria izango dau, Oñati edo Mondragoera jun barik.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK MUGERTZARRAK KEXU Mugertzako bizilagun bat kexatu zaigu: duela urte bat Mugertzako, Matxiategiko, Madurako eta San Lorentzoko bizilagunen 400 sinadura inguru aurkeztu zituzten Udalean. Mugertzatik Matxiategirako oinezkoendako zubia eskatu zuten. Espaloi bakarra dute kalean barrena, estua, eta oso arriskutsua da umekin ibiltzeko. Oraindik ez dute Udaletik erantzunik jaso. /M.B.

ETABARRUAN...

- ASTEKO BERRIAK /5**
- KIROLAK /9**
- KULTURA /10**
- Igeriluko txikia estaliko dute**
- Espainiako txapelketara**
- Musika ugari asteburuan**
- Herritarrek erabiltzeko moduan jarriko dute. Kirolgunea eraikitzeko faseak ere zehaztu dituzte.
- Leire Lasa eta Sarai Gallego Espainiako Gimnasia Erritmi-ko Txapelketan izango dira.
- Egubakoitzean, Ciudad de Acalá orkestrak, eta zapatuan, Castroko abesbatzak emandaldia egingo dute.

ASTEKO DATUA

122

LITRO METRO KARRATUKO AZKEN EGUNETAN

Luis Mari Agirrek emandako datuen arabera, 122 litro metro karratuko jaso dira Bergaran azken egunotan. Domekan 46,3 litro eta astelehenean 46,5 litro metro karratuko jaso ziren.

BESTE EKESANA

“**<Ninguno-Gaur Pellok deitu dit, zer moduz nabilen galdetu dit, edozer gauza nahi badut esateko eta lasai egoteko. Bera gaur goizean atera da, 4 ordu lo egin ditu eta poliki-poliki Frantziara bidean jarri da. Bere kamioia ere zaharra da, bidaiak ematen dizkionak gero eta okerrago tratatzen du, baina Pellok ere familiaren ardura hartu du eta badakit ez dabilela gustura, bizimodu honekin. Gidatzea atsegin du, nik bezala, baina erritmo hau ezin da jasan, redios! Merkatuak horrela eskatzen duela esaten digute, baina axola al zaio merkatu honi gure bizitza? Axola al zaio natura eta ingurumena? Zergatik behartzen gaitu horrela bizitzera? Nor da merkatua bada? IÑAKI GABILONDO / HIRU sindikatuko prentsa burua Euskaldunon Egunkaria/02-11-29**”

BERAIEKDIÑO/ Andres Osa "Sakona"



Elkarrizketa kultura berria

Iazko Irailaren 11ko bi dorreen lurreratzea, Baliko atentatua, Moskuko Dubrovka Antzokiko sarraskia eta han hemen etengabeko ekintza armatuak burutzen ari diren uanean, Elkarrizketa bidetik abiatzea premiazkoa ez ezik ezinbestekoa da. Munduko agintari boteretsuak "terrorismo"ren aurkako gudua erabat gogortu egin behar dela diote. Horiei ez ezik susmagarri diren erakunde, gobernu, ekintzaile guzti-guztiei egurra ematea da eginkizun bakarra. Soil soilik indarra eta bortizkeriaz baliatzen dira dauden gatazkak konpontzeko. Eta bitartean atentatu ikusgarriak ekiditeko, lurreko eta aireko garraioa bereziki, zorrotz kontrolatzeko agindua eman da. Igarle lanean aritzeko bokaziorik ez dugu baina badirudi, talde edo erakunde "terroristak" baliabide sofistikuak eskuratzen ari direla.

Epe laburrean, ekintza beldurgarriak burutzeko gaitasun izugarria izango dute, gobernu eta agintari boteretsuak dardaraz ipintzeko adineko ekintzak burutuz hain zuzen. Al Qaida islamiar organizazioak munduko agintari boteretsuenak tente eta kinka larrian jarri ditu. Al Qaida bezelakoak ugartzen joango dira. Bush, Aznar, Putin, Sharon, denak aipatzea luzeegia da, noiz konbentzituko ote dira mundu honetako gatazkak, konfliktoak bide horretatik ezin izango direla konpondu, zitaldu baizik? Lehenago edo geroago baina ohartu beharko dute gatazkak gainditzeko era bakarra Elkarrizketa Kultura Berriaz baliatzea dela. Elkarrizketa da leloa, mundu zabalean eta gure artean ere bai, beste bideak nahigabea eta hondamendia dakar. Horretaz ohartzeko "terroristen" kolpe beldurgarriak behar ote dituzte?

"Etengabeko ekintza armatuak burutzen ari diren uanean, elkarrizketa ezinbestekoa da"

Berrigara
Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elejpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

Gipuzkoako Foru Aldundia

Bergarako Udala

Antzuolako Udala

Elgetako Udala

ALBAITARIAK

ARTZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, sakelakoa: 607 48 71 19

BALDANA Koldo Elizalde 28. 943 76 27 97, sakelakoa: 630 764 545

ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETxea, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

GANUZA Susana Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Irune Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

OXIRONDO KONTSULTATEGIA Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

ALTUBE Edurne Simon Arrieta 2. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76


YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behe. 943 76 11 38, sakelakoa: 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

HIRIGINTZA/ Igerileku txikia estaltzeak 222.400 euro inguruko aurrekontua du, eta kirolgune berria amaitu bitartean egongo da zabalik

Agorrosingo igerileku txikia otsailerako zabalik egotea da Udalaren asmoa



AITOR URIZAR

Kanpoko igerileku txikiak 25x10 metroko neurriak ditu, eta sakonera 1,20 eta 0,80 metro bitartekoa da.

EDU MENDIBIL

Udalak Agorrosingo igerileku txikia estaltzeko erabakia hartu du. Udaleko iturrien arabera, 2003ko otsailen igerilekua erabiltzeko moduan izango da. Proiektuak 222.400 euro inguruko aurrekontua du (37 milioi pezeta).

Agorrosingo kirolgunea egiteko lanek irauten duten bitartean, kanpoko igerileku txikia erabiltzaileendako egokituko dute. Kirol Zerbitzuko iturrien arabere,

lehenbailehen aterako dute lanen adjudikazioa lehiaketara. Otsailaren hasierarako lanak bukatuta egotea nahi dute. Jaur-laritzako Osasun Sailak ere baimena eman omen dio Bergarako Udalaren egitasmoari.

Aurrefabrikatutako aldagelak eta igerilekua estaltzeko egitura metalikoa eta toldoa jartzeak 222.400 euro inguru balioko luke (37 milioi pezeta), BEZa berriz, urteko 120.200 euro ingurukoak izango dira (20 milioi pezeta), Udaleko ordezkarien arabere,

Kanpoko igerileku txikiak 25x10 metroko neurriak ditu, eta 1,20 eta 0,80 metro bitarteko sakonera. Igeri egiteko baldintzak betetzen dituela adierazi dute Udaletik. Eskainiko den zerbitzua dezente eskasagoa izan arren, Udalak aurtengo tarifak bere horretan utziko ditu bazkideendako. Interesatuak Bergarako igerilekua bakarrak erabiltzeko txartela eskuratu ahal izango dute. Era berean, Debagoieneko instalazioetara joateko txartela atera ahal izango da. Irailean Agorrosingo igerilekuak itxi zituztene-

tik, Kirol Zerbitzuko bazkideei Arrasate, Oñati edo Aretxabale-tako instalazioetara joateko aukera eman zaie. Alkateak adierazitakoaren arabera, "inbertsio handia eskatzen duen proiektua da, baina herritarren premiei erantzuna emateko beharrean geunden. Azken baten, denbora luzean egongo gara igerileku barik".

PROIEKTU BIAK AZALTZEKO, ERAKUSKETA Hasiera baten, igerileku berriak egin bitartean egongo da zabalik kanpoko igerileku txikia. Jakingo duzue, kirolgune berria

egiteko Alvaro Pérez de Amezaga eta Jorge Muntanyola arkitektoek landutako proiektua aukeratu zuen Bergarako Udalak, baina lanak adjudikatzeko daude oraindik. Victoriano Gallastegi alkatearen esanetan, "kanpoko igerilekua zelan estaliko den eta kirolgune berriko proiektuaren nondik norakoak azaltzeko, erakusketa egin nahi dugu, lehenbailehen, herritarren informatzeko. Bestalde, urte hasieran lanak adjudikatu eta kirolgune berriko lanak maiatzean abian jartzea da gure asmoa".

Jaiotza Eramangarrien Serafin Esnaola Lehiaketa San Antonion

MONIKA BELASTEGI

San Antonioko auzotarrek On Serafin Esnaola zenaren omenezko lehiaketa antolatu dute: Jaiotza Eramangarrien Lehiaketa, hain justu ere. Parte hartu nahi duten herritar guztiendako dago irekita, eta Gabonetako azokaren ekitaldien barruan egingo dute.

San Antonioko Gure Ametsa elkarteak Kulturak batzordeak berritasuna antolatu du helduek diren Gabonetarako: Jaiotza Eramangarrien Lehiaketa, hain justu ere.

Lehiaketa hori ez da ekitaldi isolatua izango; Gure Ametsakoek Gabonetan antolatu izan duten azokaren ekitaldien barruan sartu dute, eta orain dela gutxi hil zen On Serafin Esnaolaren omenez, haren izena jarri diote lehiaketari.

HERRITAR GUZTIEI ZABALIK

Parte hartu nahi duten herritar guztiei irekita dago Jaiotza Eramangarrien Lehiaketa, baina oinarriek zehazten dutenez, jaiotzek Gabonetako misterioa duintasunez eta begirunez irudikatu beharko dute.

Jaiotza eramangarriek oinarri sendoan egindakoak izan beharko dute, eta oinarri horrek 30 eta 80 zentimetro bitarteko neurria izan beharko du alde bakoitzeko. Lanak Gure Ametsa elkartearen aurkeztu beharko dira, abenduaren 21ean, zapatuan, 11:00etan. Sari banaketa egun berean egingo dute, 14:00etan, San Antonioko plazatxoan. Hiru sari egongo dira adinaren arabera: 12 urtera arteko sari bat; 13 eta 17 urtera arteko beste bat, eta hirugarrena, 18 urtetik gorakoendako. Atal bakoitzeko irabazleei garaikurra emango zaie.

LABUR**Lasagabaster eta Zurraderoko zubien arteko pasealekua konpontzeko proiektua, onartuta**

Lasagabaster eta Zurraderoko zubien arteko trenbide zatia urbanizatzeko proiektua eta baldintzak onartu ditu Gobernu batzordeak. Urbanizazio lanak lehiaketa bidez esleituko dituzte, eta lizitazio oinarria 50.075 eurokoa izango da (zortzi milioi eta erdi pezeta inguru).

Bergarako Udalaren asmoa da pasealekua egokitzea. Horretarako, zoru asfaltatuko dute eta, horrez gain, ibilbidea argiztatzeko farolak jarriko dituzte.

Nafarroako bandera udaletzeko balkoitik zintzilik egon zen joan den martitzenean

Bergarako Sozialista Abertzaleek Nafarroako bandera jarri zuten zintzilik Bergarako udaletzeko balkoitik joan den martitzenean. Nafarroa Eguna ospatzeko ekitaldien barruan Udalbiltzak egingo deialdiari erantzunez jarri zuten bandera. Besteak beste, nazio identitatea aldarrikatzea zuten helburu.

Bergarako igerilekuko tarifak 2003**TARIFA INDIVIDUALA**

18 urtetik beherakoak	62,80 €
18 urtetik beherakoak	94,70 €
Langabeak, ikasleak <LGS	62,80 €
Pentsionista, erretiratu eta elbarriak >LGS	61,55 €

TARIFA FAMILIARRA

2 kide <LGS	63,75 €
2 kide >LGS	124,70 €
3-4 kide edo gehiago <LGS	67,80 €
3-4 kide edo gehiago >LGS	132,80 €
Pentsiodun senar-emazteak <LGS	56,25 €
Pentsiodun senar-emazteak >LGS	109,70 €

LGS: Lanbidearteko gutxieneko soldata

Debagoieneko kirol txartela 2003**IGERILEKUAK EDO GAINERAKO INSTAL.**

18 urtetik beherakoak, langabeak, ikasleak	71,50 €
18 urtetik gorakoak	102,65 €
Familiarra	143,00 €

IGERILEKUAK ETA GAINERAKO INSTAL.

18 urtetik beherakoak, langabeak, ikasleak	80,85 €
18 urtetik gorakoak	136,85 €
Familiarra	211,50 €



XABIER AZKOITIA

Astean barrena margoak berreskuratzeko aurrekontua zein den jakingo dute eta datorren asterako hasiko dira lanak.

ONDAREA/ Garaia eta margo kopurua kontuan hartuta ez dute parekorik

Santa Marinako margoak, bakarrak Gipuzkoa osoan

MONIKA BELASTEGI

Duela bi aste azaldu ziren margoak, ganga azpietan. XVI. mendekoak dira, eta Gipuzkoan bakarrak direnez, berreskuratu egingo dituzte. Bestalde, elizaren berritze lanen aurrerapausoak herritarrei ezagutzera emateko zabaldu egingo dute Santa Marina, domekan.

Duela bi aste ganga azpietan azaldutako margoak berreskuratzea eta agerian uztea erabaki dutela adierazi du Xabier Azkoitia abadeak. Erabaki hori joan den egubakoitzean egindako batzarrean hartu zuten Gotzaindegiko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta elizako ordezkariak.

Margoen garrantzian datza erabakia: XVI. mendeko bigarren erdikoak dira, eta sabaiaren zati handi baten agertu dira, gainera.

Xabier Azkoitia Santa Marinako abadearen esanetan, Gipuzkoan ez dago horrelako margorik duen elizarik, ez tamainari ezta garaia-ri dagokionez ere.

Hiru nabeetako bitan agertu dira margoak: ezkerrekoaren eta erdikoaren %85ean, hain justu ere. Eskuineko aldekoan, berriz, ez dago margorik. Azkoitiaren esanetan, "eskumako margoak XVII. mendean galdu zirela uste dugu, elizaren zati bat erori eta konpondu zutenean".

Gotzaindegiak, Foru Aldundiak eta elizako batzordeak berreskuratzea erabaki dute

Azaldutako margoak kolore askotakoak dira, eta aingeru buruak eta landareak irudikatzen dituzte. Elizak urtetan izan dituen berritze lanak direla eta, zentimetro bateko geruzaren azpian daude margoak, eta agerian uzteko lanok ezkerreko nabean hasiko dira.

SANTA MARINA, DOMEKAN, ZABALIK

Santa Marina eliza berritzeko lanen nondik norakoak ikusteko zabaldu egingo dute eliza, domekan, 11:00etatik 14:00etara bitartean. Uztailean itxi zuten, zahar-berritze lanei ekiteko, eta bost hilabeteren buruan, elizaren herena amaituta dago. Epe horretan egin dituzten lanak ikusteko interesa duten herritar guztiei dago zabalik, eta Jesus Laskurain aparejadorea eta obra batzordeko kideak han izango dira azalpenak emateko.

Umeekin jolas egiteko ikastaroa antolatu du Udalak

MONIKA BELASTEGI

Udaleko Euskara Zerbitzuak herriko ikastetxeekin lankidetzan antolatu du umeekin jolas egiteko ikastaroa. Bi atal nagusi ditu ikastaroak: jolas eta kantuen ikastaroa eta ipuin kontaketa ikastaroa.

Umeekin jolas egiteko ikastaroak bi helburu nagusi ditu: bate-tik, gurasoei euren seme-alabekin euskaraz jolas egiteko baliabideak eskaintzea; bestetik, baliabide horien bitartez, umeen emozio heziketa bultzatzea eta umeen eta familiakoen arteko afektibitatezko loturak indartzea.

Horretarako, bi ikastaro antolatu dituzte: bata, jolas eta kanten ikastaroa; bestea, ipuin kontaketa ikastaroa. Ikastaroen aurkezpen gisa, hitzaldi bat edo bi egingo dizkiete parte hartzaile guztiei. Hitzaldira, besteak beste, euskarazko jolas baliabideak

aurkeztuko dituzte eta ikastaroetan jorratuko diren gaiek umeen hizkuntza jabeakuntzarako eta emozio heziketarako duten garrantzia aztertuko dute.

Aurkezpena noiz egingo den zehaztu barik dagoen arren, Gabonen aurretik izango da. Parte hartzaileek eguna eta ordua jakiteko abisua jasoko dute.

Atal praktikoari dagokionez, jolas eta kantuen ikastaroak ordu eta erdiko zortzi saio izango ditu, eta ipuin kontaketa ikastaroak, ordu eta erdiko lauzpabost saio.

Ikastaroan guraso, begirale, zaintzaile eta, oro har, interesa duen edonork har dezake parte. Jolas eta kantuen ikastaroaren kasuan euskarazko eta gaztelaniazko taldeak osatuko dituzte, baina ipuin kontaketa euskarazko taldeak bakarrik osatuko dituzte. Izena emateko epea abenduaren 10era arte egongo da zabalik. Informazio gehiago, Euskara Zerbitzuan: 943 77 91 66.



Pintaketak Arranon eta gaztetxean

Astelehenetik martitzenerako gauean hainbat ezezagunek pintaketak egin zituzten Arrano tabernan eta gaztetxean. Margo horiz eta gorri egindako pintaketetan, besteak beste, *No olvidamos España* edo *Bienvenidos a España* testuak irakur zitezkeen. Horrez gainera, Arranoko, gaztetxe eta LABeko zerrailak bortxatu egin zituzten, zotzak sartuta.

ZARAITZU

Artisau produktuak

BEREZITASUNAK:

Ardoa, gazta, hestebeteak, ahatekiak, Nafarroako kontserbak...

DATORREN ASTETIK AURRERA ZUEKIN

Bergarako Fraiskoazuri plaza 3an (pilotakuaren ondoan)
Laster arte!



SAN MARTINEKOOK DONOSTIA EZAGUTZEN

San Martin ikastetxeko OHoko 2. eta 3. mailako ikasleak Donostian izan ziren aurreko egunean, hilaren 28an. Kutxako Gaztetxo Elkartek Donostia ezagutzeko irteerak antolatzen ditu, eta hara joan ziren San Martineko berrogehita hamar bat lagun, Itziar Ugarriza eta Karmen Montoia irakasleekin batera. Besteak beste, Akuarioan, Itsasontzi Museoan eta Miramongo Kutxaespazioan izan ziren, eta primeran igaro zuten eguna.



HIESA MINTZAGAI IPINTZAN

Hiesaren Eguna izan dela-eta, astelehenean, Bermeoko Txo-Hiesa taldeko Eugen Gabantxo eta Gaizka Asolo hizlari izan ziren Ipintza institutuan, DBHko eta Batxilergoko ikasleen aurrean. Osasun eta Sexu Hezkuntzaren programaren barruko ekitaldi honetan, hizlariak elkartasuna eta prebentzioaren garrantzia azpimarratu zuten.

EUSKARAREN FESTA MARIAREN LAGUNDIAN

Martitzenean, abenduaren 3an, San Frantzisko Xabier Eguna izan zen, Euskararen Nazioarteko Eguna. Euskal Herri osoan ospakizunak izan ziren herenegun, eta Bergarako ikasleek ere ez zuten hutsik egin. Esate baterako, Mariaren Lagundiko ikasleek (3 urtekoak zein goi mailako heziketa zikloetakoak) goizean ekitaldiak izan zituzten: euskararen gaineko gogoetak, jolasak, txistorra-jana eta gaztaina erreak, hotzari aurre egiteko. Eguraldi txarra... baina primerako giroa.



ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak	Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak	Era guztietako moldurak
Sarrailak	Apalak
Heldulekuak	Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Bideluze

ARROPA GARBITEGIA

Laneko arropa
Mantelak
Mantak
Edredoak
Alfonbrak
Moketak
Gortinak

**Arropa
konpontzen
dugu**

**Bordatuak
egiten
ditugu**

AMILLAGA 26
POSTA KUTXA 82
BERGARA
TEL.: 943 764 943
FAXA: 943 769 708

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 | Ibargarai 44-46
BERGARA | BERGARA
943 76 20 49 | 943 76 45 53


Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



Santa Luzia ospatzen

Abenduaren 14an, zapatua, afaria
STRIP-TEASEA eta DISKOTEKA
MAHAIA ALDEZ AURRETIK GORDETZEKO: 943 76 35 51

San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tel. 943 76 35 51

PILOTA

Muguruzak eta Gutiérrezek Eibarko bikotearen aurka galdu zuten, 21-22

Itzulerako partidua abenduaren 13an jokatuko dute, Astelena pilotalekuan

EDU MENDIBIL

Ander Muguruzak eta Igor Gutiérrezek 21-22 galdu zuten Eibarko bikotearen aurka, egubakoitzean, Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako finalerdian. Itzulerako partidua hilaren 13an izango da.

Egubakoitzeko emaitzaren ostean, Muguruzak eta Gutiérrezek gutxienez bi tantogatik irabazi beharko dute Eibarren, finalerako txartela lortzeko. Beste finalistak Amezketa eta Lizartza bikoteen arteko norgehiagokan erabakiko dira. Finala abenduaren 21ean jokatuko da, Oñatiko Zubikoa pilotalekuan.

Muguruzak eta Gutiérrezek etsai gogorak izan zituzten aurrean egubakoitzeko partiduan. Eibarko taldean ari den Gorka Martín bergararrak lan bikaina egin zuen aurreko koadroetan eta Jon Bengoetxea atzelariak amateur mailako pilotari onenetakoa dela azaldu zuen. Bergararrak 11-5 aurreratu ziren, eta, handik aurrera, Eibarko ordezkariek 13 tanto egin zituzten jarraian (11-18). Edozelan ere, Muguruzak eta Gutiérrezek esku-



Muguruzak eta Gutiérrezek irabaztea beharrezkoa dute hilaren 13ko partiduan.

ra izan zuten garaipena (21-20), baina azken bi tantoak eibartarrek egin zituzten. Atzeko koadroetan erabaki zen partidua.

Bestalde, egubakoitzean eta domekan, Gabonetako Txapelketako partidua izango dira, Udal Pilotalekuan, 11:00etan.

Lasa eta Gallego, Espainiako Gimnasia Txapelketara

E.M.

Leire Lasa eta Sarai Gallego gimnasta bergararrek Espainiako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan hartuko dute parte, aste bukaeran, Murtzian. Egubakoitzetik domekara bitartean, taldekako Espainiako Txapelketa jokatuko da han, eta Sarai eta Leire Ipurua taldearekin izango dira. Murtzian Estatu osoko gimnastarik onenak batuko dira.

Leire Lasa (16 urte) senior taldearekin arituko da. Euskal Herri mailan euren nagusitasuna azaldu dute aurten Ipurua tal-

dekoek. Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak irabazi dituzte eta, horrez gain, Euskal Ligan ere lehenak izan dira. Murtzian dominaren bat eskuratzeko faboritoren artean ditugu. Leirek lau urte daramatza Ipurua taldean.

Sarai Gallegok infantil taldearekin hartuko du parte Murtziako txapelketan. Saraik 13 urte dauka, eta aurten lehenbiziko denboraldia du Ipuruan. Gipuzkoako Txapelketan eta Euskal Ligan bigarrenak izan dira, eta Euskadiko Txapelketan hirugarren sailkatu zen Susana Prietok zuzendutako taldea.




Leire Lasa eta Sarai Gallego Ipurua taldean ari dira.

Felix Iñurrategi Mendi Eskolarako material bilketa egingo du Pol-Polek

E.M.

Pakistango Machulu herrian dagoen Felix Iñurrategi Mendi Eskolara bidaltzeko material bilketa egingo du Pol-Polek, abenduaren 9tik 19ra bitartean. Herritarrei parte hartzeko dei egin die Pol-Polek.

Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioak eta Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatutako material bilketa, Pakistango Baltistan herrialdean dagoen Machulu herrira bidaltzeko, hain zuzen. Helburua da egoera txarrean ez dagoen mendiko materiala bilteza: botak, galtzerdiak, prakak, jantzi termikoak, forru polarrak, haizearen edo euriaren kontrako txamarrak, kranpoiak, pioletak, eskaladako materiala, eskularruak, zakuak, eta beste hainbat gauza batuko dituzte Pol-Poleko-



Jasotako materiala Machuluko Felix Iñurrategi Mendi Eskolara bidaliko dute.

ek. Interesatuak Pol-Poleko egoitzara jo beharko dute, hilaren 9tik 19ra, 19:00etatik 20:30era. Esan bezala, jasotako materiala

Machulun dagoen Felix Iñurrategi Mendi Eskolara bidaliko dute, hantxe dauden alturako zamaketariek erabiltzeko.

Bergarak Mundarro hartuko du, zapatuan, Agorrosinen

E.M.

Bergara KEko preferente mailako futbol taldeak Mundaroren aurka jokatuko du, zapatuan Agorrosinen, 15:30ean. Azken bi partidua galdu ondoren, mahoneroek beharrezko dute irabaztea.

Zapatuan, Bergarak galdu egin zuen, Zarautzen (2-0), eta Juani Garairen taldeak beheara egin du sailkapenean. Zortzigarren tokian dira orain, 19 punturekin. Zarautz eta Trintxerpe aurretik dira, 21 punturekin biak, eta bosgarren tokian dagoen Berio taldeak dagoeneko zazpi puntu ateratzen dizkio Bergarari.

Zapatuan, mahoneroek partidua txarra egin zuten Zarautzen, Asti futbol zelaian, eta eskuhutsik itzuli ziren handik. 22. minuturako 2-0 galtzen ziren, eta, kroniken arabera, ez zuten gol

aukerarik sortu partidua osoan. Bergarak bi partidua jarraian galdu ditu, Anaitasunaren eta Zarautzen kontra, eta zapatuan irabaztea da etxeko helburu bakarra. Mundarro sailkapenean 12. tokian dago, 16 punturekin.

BESTE HIRU PARTIDU IPINTZAN

Aste bukaeran beste hiru futbol partidua jokatuko dira Ipintzan: egubakoitzean, hilak 6, infantil mailako taldeak Mutrikuren aurka jokatuko du, 10:00etan. Julian Ugaldere taldeak irabazi egin zuen azken jardunaldian, 1-2, Azkoitia; bestalde, bigarren mailako gazte taldeak, aurreko domekan Ondarroan 0-1 irabazi ostean, Antzuola hartuko du, domekan, 11:30ean; eta, bukatzeko, nesken taldeak Lagun Onak taldearen aurka neurtuko ditu indarrak, domekan, 16:30ean. Elgoibarren galdu zuen Bergarak azken jardunaldian, 3-2.

EHZ HUTS EGIN KIROLA OPARTITU

SPORTLAND FOOD SHOPS

SPORTLAND ARRASATE. Garibai Etorbidea. 2-6 Gipuzkoa



BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolako hainbat taldek ere emanaldia egingo dute Udazken Kulturalako egitarauaren barruan, abenduaren 13an.

Bergarako Musika Eskolak gonbidatuta dator, eta hiru egun emango ditu gure artean

Ciudad de Alcalá orkestrak emanaldia egingo du, bihar

MONIKA BELASTEGI

Alcalá de Henaresko Ciudad de Alcalá orkestra Bergarako Musika Eskolak gonbidatuta etorriko da herrira. Domekara arte egongo dira gure artean, eta kontzertua ere egingo dute, bihar, egubakoitza, 19:00etan, Mariaren Lagundia elizan, hain justu ere.

Alcalá de Henaresko orkestrak hiru egun emango ditu Bergaran: bihar, egubakoitza, iritsiko dira, eta domekara arte egongo

dira. Bergarako Musika Eskolak gonbidatuta etorriko dira. Kontua da Musika Eskolako orkestrako zuzendari Maite Aurrekoetxeak eta Ciudad de Alcalá orkestrako zuzendari Vicente Ariñok elkarrekin ikasi zutela. Harreman hori oinarri dutela, Alcalá de Henareskoak Bergarara etorriko dira, eta Bergarako Musika Eskolako orkestrak maiatzean itzuliko die bisita.

Ciudad de Alcalá orkestrak Mariaren Lagundia elizan egingo duen egitarauak bi atal izango ditu: lehenengoan, Tschai-

kovskyren *Cascanueces*-ko *Suite* eta Strauss-en *Enperadorearen baltsea* egingo dituzte. Bigarrenean, film ezagunetako soinu-bandak egingo dituzte; besteak beste, *Anastasia* eta *Oz-eko azitia*.

MUSIKA ESKOLAREN EMANALDIA

Udazken Kulturalaren barruan Musika Eskolak ere egingo du emanaldia. Abenduaren 13an izango da, 19:00etan, Udal pilotalekuan. Honako taldeak arituko dira: Hari Txiki Taldea, Hari Taldea, Akordeoi Orkestra, Gazte Banda eta Orkestra Sinfonikoa.


LABUR

Sarrerak salgai Orkestrak Arrasaten egingo duen 'Los Gavilanes' zarzuelarako

Bergarako Orkestra Sinfonikoa (Orkestrako hogeita bost kidek) Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoarekin batera *Los Gavilanes* zarzuela egingo du, abenduaren 13an, 14an eta 15ean, Arrasateko Amaia Udal Antzokian. Hiru emanaldiak ordu berean izango dira, 19:30ean, hain justu ere, eta sarrerak Guria tabernan jarri dituzte salgai 15 euroren truke. Iaz ere lankidetzan aritu ziren bi taldeak, eta *Katiuska* zarzuela jokatu zuten.

Asier Altuna 'Kixi'ren 'Topeka' film laburra nazioarteko Zinebi zinemaldian saritu dute

Bilboko Zine Dokumental eta Laburmetraia Nazioarteko Zinemaldia da Zinebi. Azaroaren 25etik 30era bitartean zinemaldiaren 44. aldia jokatu dute. Beste batzuren artean, Euskal Zinemagintzaren sari nagusia banatu dute eta horixe da Altunaren *Topeka* lanari egokitu zaiona. Gidoiaren orijinaltasuna goraiatu du epaimahaia.



AHT, tortura eta Palestina ezagutzeko

Bergarako Herri Mugimenduen Hamabostaldiaren barruan, besteak beste, bi erakusketa daude ikusgai: bata, AHTren gainekoa, Pol-Pol aretoan dago ikusgai, hilaren 9ra arte. Bestea, torturaren gainekoa, gaztetxean dago ikusgai, hilaren 9ra arte. Orduetik aurrera Pol-Pol aretora eramango dute, 15era bitartean. Astelehenean beste erakusketa bat ere zabalduko dute; Palestinaren gainekoa, hain justu ere. Kultura etxean egongo da ikusgai, hilaren 15era arte. /M.B.

Castroko abesbatza, zapatuan, San Pedron

MONIKA BELASTEGI

Castro Urdialesko Agrupación Coral Santa Mariak kontzertua egingo du, zapatuan, 20:00etan, San Pedro parrokian.

Ibilbide luzea duen abesbatza da. Hastapenetan Estatuan barrena egiten zituen kontzertuak, baina 1981. urtean, nazioarteko ibilbideari ekin zion. Orduetik hona, besteak beste, Alemanian eta Frantzian barrenako ibilbideak egin ditu.

Horrez gain, hainbat disko ere grabatu ditu: esate baterako, Castroko doinuak batzen dituen

Aires castreños diskoa eta Castro Urdialesko ereserki ofiziala jasotzen duen *Canto a Cristo*.

HAMALAU LAN

Gaur egun, hogeita zortzi lagunek osatzen dute abesbatza, eta 1994. urtea ezkerro, Begoña Goikoetxea Biguri da zuzendaria.

Hamalau lanez osatutako egitaraua egingo dute San Pedron, besteak beste: Pater Otto Loidolen *Graduale*, Mozarten *Laudate Dominum*, Iradierren *La Paloma*, Bizet-en *Carmen*, Sorozabalen *Maite*, Lararen *Granada* eta Gardelen *El día que me quieras*.



Gaur egun, hogeita zortzi lagunek osatzen dute taldea, eta 1994a ezkerro, Begoña Goikoetxea da zuzendaria.

AGRUPACIÓN CORAL SANTA MARIA

ZAHARREN ETXETIK

San Joxepeko abeslariak Natalio Juaristiri omenaldia egin zioten aurreko eguenean

E.M.

Santa Zezilia egunaren ospakizuna aitzakia hartuta, San Joxepeko abeslariak omenaldi beroa egin zioten Natalio Juaristiri aurreko eguenean. Nataliok 90 urte egin zituen zapatuan, hilaren 30ean, San Andres Egunean.

San Joxepeko abesbatzako kideen artean beteranoena da Natalio. Gutxitan huts egiten du eniseguetara, eta eguenean, argi geratu zen haren lagunek estimazio handia diotela. Santa Zezilia ospatzeko egindako bazkaria Nataliori egindako omenaldi bihurtu zen. San Joxepe elkar-tean bertan 56 lagun bildu ziren bazkaltzeko, eta giro bikaina izan zen nagusi. Lagun artean primeran bazkaldu zuten abesbatzako kideek. Bazkalostean, Nataliok hainbat opari jaso zituen lagunen partetik: Karmelo Santorcuatok berak egindako makila oparitu zion, Markos Labaien aurkezpenean esan bezala, "egunen baten Nataliok makila horren falta izango du eta". Era berean, Susana Izak ere opari bat eman zion, eta, emozioari ezin utsiz, koplak batzuk kantatu zituen, bildutako txalo artean.

Ohikoa denez, Markos Labaien Aizkoi-k bertso batzuk prestatu zituen ospakizunerako. Hona hemen Aizkoi-k abestutako bertsoetako bi: lehenak honela dio: *Laurogeita hamar urte beteta/ oraindik buru argia/ beti laguntzen aritu zara/ kontzientzia garbia/ fede haundiko gizona zara/ gaizkirik egin gabia/ inguru koentzako formala/ etxe koentzat hobia.* Eta kantatu zuen azkenak: *Omenaldi hau izan dedila/ denontzako pozgarria/ ondo pasatzeko asmuakin/ guztion irri farrria/denok abestuko degu hemen/ gaur gure himno berria/ holako egun polit batean/ kantatutzeko jarria.*

Nataliok eskerrak eman zituen lagunei, eta sasoi betean dagoela azalduta, kantuan hasi zen denen aurrean.



Susana eta Markosek bertsoak eskaini zituzten Nataliori.



San Joxepeko abesbatzak egindako bazkarian 56 lagun elkartu ziren, eta giroa ezin hobea izan zen.



Susana Iza, Natalio Juaristi, Karmelo Santorcuato, Gerardo Mondragón eta Markos Labaien.



Miguel Sagastume 'Urkiko magoa' ere San Joxepen izan zen.



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37



GABILONDO
INMOBILIARIA
Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67



BERGARA
Dorleta Narbaiza
Abenduaren 13an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Andrea Rubio
Abenduaren 9an 6 urte.
Urte askotarako!
Aitor eta gurasoak.



BERGARA
Enaitz Azkarateaskasua
Sean urtebete. Zorionak!
Gurasoak eta etxeokak.



BERGARA
Nerea Fernandez
Abenduaren 12an 3 urte.
Urte askotarako!
Aita eta ama.



BERGARA
Aitor Sanchez
Abenduaren 5ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Unai Fernandez
Abenduaren 5ean urtebete. Zorionak!
Etxekoak; bereziki, Gorka.



BERGARA
Irati Elortza
Abenduaren 8an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Nerea Agirrezabal
Abenduaren 9an 8 urte.
Zorionak! Idoia ahizpa,
etxeokak eta lagunak.



BERGARA
Julen Azkarate
Abenduaren 8an 4 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Mireia Arana
Abenduaren 5ean 6 urte.
Zorionak! Lagunak,
gurasoak eta Julen anaia.



BERGARA
Inmaculada Garcia
Abenduaren 11n urtebetez. Zorionak!
Isa eta familiakoak.



BERGARA
Izaskun Arriola
Abenduaren 12an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta lagunak.



BERGARA
Aritz Arrillaga
Abenduaren 4an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Asier Reguero
Abenduaren 8an 2 urte.
Zorionak! Gurasoak eta aitona-amonak.



BERGARA
Kepa Altolagirre
Abenduaren 8an 2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Andoni Kalbano
Abenduaren 11n 2 urte.
Urte askotarako!
Itsaso.



BERGARA
Jorge Varela
Abenduaren 9an 32 urte.
Zorionak! Emaztea,
semea eta familiakoak.



BERGARA
Unai Egaña
Abenduaren 7an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Nerea Etxezarreta
Abenduaren 6an 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Anemo
Abenduaren 2an 17 urte.
Zorionak! San Migeleko
bidezidorrekuak.



BERGARA
Lier
Abenduaren 12an 17 urte.
Urte askotarako!
Elo, Drutz eta Bit.



BERGARA
Josu Gomez
Abenduaren 4an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak BERRIGARAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia* eta emaitza ezusteko ederra!
Doan!

*Argazkiaren neurria; gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeari komeni da.

Adi! Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBÉZIBAR

Alde zaharreko zein kaletan eta zein etxetan daude leiho hauek?

GALDEBALDE

1.

Zeintzuk dira Agorrosingo kanpoko igerileku txikiko neurriak?

- A/ 25x10 m.
- B/ 20x15 m.
- C/ 50x13 m.

2.

Zein da Castroko Agrupacion Coral Santa Mariako zuzendaria?

- A/ Adela Portuetxe.
- B/ Maite Aurrekoetxea.
- C/ Begoña Goikoetxea.

3.

Pakistango zein herritan dago Felix Iñurrategi zenaren omenezko Mendi Eskola?

- A/ Karatxin.
- B/ Rjastanen.
- C/ Machulun.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MIREN CARNICEROrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Miren!

Galderen erantzunak: Bonofotoa: San Antonio / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ganbatzar-buztan estra

Kiloa.

9,98 €

1.661 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



PINTOREBERGARARRAKGAUR


Jon Balentziaga

EDU MENDIBIL

Bere burua eskultoretzat eta pintoretzat eduki arren, eskulturari lehentasuna ematen diola onartzen du Jon Balentziagak (Bergara, 1960). Bi etxetarako armarriak lantzen ari da orain, eta San Juango baserri baterako amaitu berria du beste bat. Pinturari dago-kionez, 14 urterekin hasi zen margotzen, Mari Paz Alustiza irakaslearekin. Paisaiak, lan abstraktuak, erretratuak eta natura hilak egiten ditu, nagusiki. Hark adierazi bezala, "espresionismora hurbiltzen diren lanak interesatzen zaizkit gehien, eta ikuslea hunkitzea da nire helburua". Gustuko margolarien artean Lazkano, Zumeta eta Flor nabarmentzen ditu. Azken erakusketa iaz egin zuen, Donostian, eta datorren urtean, azkenaldian egindako lanak jendaurrean erakutsi nahi lituzke. Ohikoa duenez, Gabonetan herriko pintoreek kultura etxean egiten duten erakusketan hartuko du parte.

Lehiaketetan parte hartzeko ohitura dauka, eta jasotako sarien artean, Estatu mailako gutxituendako lehiaketan lortu zuen bigarren saria gogoan dauka Jon Balentziagak.

"Espresionismora hurbiltzen diren lanak interesatzen zaizkit gehien"



E.M.



ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko abenduaren 5a / 137. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Oraingo astetik aurrera, Urkuluko ura izango dugu herriko iturri guztietan

AINZANE IRIZAR

Bukatu dute Urkulutik Antzulara ura ekartzeko azpiegitura osoa. Joan den eguaztenean, udal ordezkariak, lanak egin dituen enpresako arduradunek eta Gipuzkoako Ur Partzuergo obra zuzendariak inspektzio bisita egin zuten hodiak sartu dituzten bide osoan barrena.

Aurten, martxoan, bukatu zuen Gipuzkoako Ur Partzuergoak Urkulutik Antzulara ura ekartzeko azpiegituraren proiektua. 1994. urteko proiektua zuen esku artean Gipuzkoako Ur Partzuergoak, baina zaharkituta zegoela eta, zenbait aldaketa egin zizkionten proiektu horri. Esan bezala, martxoan bukatu zuten proiektua, eta maiatzean, berriz, hodiak sartzeko lanekin hasi ziren.

Bederatzi hilabeteko kontratua zuen lanak egin dituen enpresak azpiegitura osoa bukatzeko, baina zazpi hilabete baino gutxiago behar izan ditu.

URKULUKO URAK, ABANTAILA UGARI

Erremate txiki batzuk besterik ez dira falta lanekin amaitzeko, baina oraingo astetik bertatik aurrera, Urkuluko ura izango dugu Antzularako etxe guztietan.



Maiatzean hasi zituzten Urkulutik ura ekartzeko lanak.

Gipuzkoako Ur Partzuergoak joan den astean hasi zituen Aitzagako ur-depositua garbitzeko lanak.

Udaleko arduradunen eta Ur Partzuergoaren esanetan, hainbat abantaila ditu herrian Urkuluko ura izateak: alde batetik,

sikate garaian, ziurtatuta izango dugu ur hornidura; bestetik, eta garrantzitsuena, uraren kalitatea da. Urkuluko urak sanitare zuzendura guztiak betetzen ditu.

Orain arte herriko hainbat iturburutako ura hartu izan dute antzularrek. Hemendik aurrera

ere iturburu horietako ura erabiltzen jarraitzeko asmoa erakutsi dute Antzularako Udalak eta Gipuzkoako Ur Partzuergoak. Urkuluko horniduran akatsen bat izaten baldin bada edo larrialdi kasuren baten, herriko iturburuetako ura erabiliko dute.

HERRITARREN HITZA / Alaitz Jauregi • Gizarte laguntzailea

Lotsagarrixa benetan

Danok enteratu gara Galizia alde hortan petroleua dala ta zabaldu dan berrixakin; zikinkerixa ederra egin dabe, argi eta garbi esanda: hainbeste animala hil, hainbeste natura kutsau... desastre galanta, ez dago eskubiderik. Eta nik esaten dotena da: komeni jakuenian beste egoera batzuk azkar konpontzen dittue, ba!!! Kasu honetan ze, hau konpontzeko ez dauke intentziñorik ala? Baina tristiena ez da hori, okerrera da jendia ja hasi dala keizatzen Gabonetan ez dabelako nahi beste marisko eta arrain

edukiko! Mesedez! Mundu erdixak ez dauka egunero jateko ogirik, ez edateko urik, eta gu hemen kapritxuei begira?

Hori izengo da orduan hainbeste entzuten dan "espíritu navideño" dalakua. Egixa da Gabonetako epokiak bere gauza onak be badauzkala, ez dogu esango dana negatibua danik. Baina nere ustez benetan lotsagarrixa da Gabonei gaur



"Lotsagarrixa da Gabonei emuten jakuen zentzua"

egun emuten jakuen zentzua; zergaittik esaten doten hau? Hasteko, bi hillabete lehenago hasten direlako telebistan, propagandetan e.a. Gabonetako gauzak sartzen.

Eta tragatzen dittugun "programa solidarixoa" deitzen jakuenak? Puf! Zihero emozioan-tiak izaten dira:

hiru duro dauzkanak bi eta erdi emuten dittu, 50 kilo dauzkanak 50 duro eta eskatu eta

eskatu jarduten dabenek ez dakit zenbat orduan, eskerrak, besterik ez.

Hori, gainera, bi egun konkretotan, eta urtiak dauzkan gainontzeko 363 egunetan, zer? Biharra daukan jende hori dana ez da esistitzen urte osuan, ala? 48 orduan bakarrik akordatzeko gara eurekin, ala?

Hobe dogu danok egunero-egunero jartzia geure aldetik ondokuari, ingurukuari eta urrin dagonari laguntzeko borondate pixka bat Gabonetan, udaberrihan, udan eta baita udazkenian be. Ez dozue hola pentsatzen?

LABUR

Nesken futbol taldea osatu nahi du Kirol Elkarteak

Irailerako ez zuten lortu nesken futbol talderik osatzea. Orain, Kopa Txapelketarako taldea osatu nahi dute Antzulara Kirol Elkarteak. Futbol talde horretan jokatu nahi duten neskek abenduaren 15a baino lehen eman beharko dute izena, Tomas Ormaetxe presidenteari deituta.

Eskulan ikastaroa egingo dute, urtarrilean hasita

Udalak Eskulan ikastaroa antolatu du, eta urtarrilean hasiko da. Pintura dekoratiboaren gainekoa izango da, eta egunetan eskainiko dute ikastaro hori, 15:00etatik 17:00etara, hain zuzen ere. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago, abenduaren 20ra arte, Antzularako udaletxean.

Amaia Zabaletari bukatu zaio lan kontratua

Kirol teknikari lanetan hasi zen Antzularako Udalean Amaia, eta azkeneko hilabeteotan Kultura teknikari lana ere egin du. Orain, baina, kontratua amaitu zaio, eta Jone Larrañaga itzuli da Udaleko Kultura teknikari lanpostura. Amatasun bajarekin egon da Jone azken hilabeteotan.

Giltza sorta handi bat azaldu da udaletxean

Aurreko astean, giltza sorta handi bat topatu zuten, eta udaletxeko bulegoan dago. Besteak beste, etxeko giltzak eta automobilekoak ditu sorta horrek. Norbaitek giltzak galdu baldin baditu, udaletxean topatuko ditu. Gogorra ezazue, bestalde, kalean topatutako gauza asko egoten dela udaletxeko bulegoan.

ELKARRIZKETA

ALAITZ ZABALO/FLAUTA JOTZAILEA

“Aspalditik genuen haize boskotea osatzeko ideia; azkenean, duela urtebete sortu genuen Zura taldea”

Zura haize boskoteko kide da Alaitz Zabalo; joan den zapatuan eskaini zuen talde horrek lehen emanaldia, Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Orain dela urtebete sortu zuten taldea, eta Alaitzek flauta jotzen du.

Zer moduz joan zen zapatuko emanaldia?

Oso ondo; jendez gainezka egon zen osoko bilkuren aretoa, eta jendeari asko gustatu zitzaion emanaldia. Jendearen jarrerarekin oso gustura geratu ginen. Hiru bergararrek, arrasatear batek eta zuk zeuk osatzen duzue Zura boskotea. Zelan osatu zenuten taldea?

Aspalditik genuen taldea osatzeko ideia, baina fagota falta zitzaigun eta ez genuen lortzen taldea osatzerik. Azkenean, duela urtebete inguru, boskotea osatu eta entseguetan hasi ginen. Bat izan ezik, gainerakook aspalditik



AINZANE IRIZAR

ezagutzen genuen elkar, Bergarako Bandako kide gara-eta. **Ze musika mota egiten duzue?**

Denetik pixka bat: klasikoa, gaur egungoa... Bergarako emanaldian, esaterako, gaur egungo

piezak eskaini genituen, batez ere, baina denetik egiten dugu. Entzuteko oso erraza da egiten dugun musika.

Bergarako Bandan diharduzu, Zura haize boskotean diharduzu, Musika Ikaske-

tak egin dituzu, flautako gorengo maila, eta abar. Esan daiteke zure bizitzan musikak toki garrantzitsua betetzen duela.

Bai; bestalde, Bilbon flauta orkestra bat ere sortu dugu, flauta familia osoarekin osatutako orkestra. Egia da oso garrantzitsua dela niretako musika, betidanik gustatu izan zait musika; txikitatik nahi izan dut flauta jotzaile izan.

Aurrera begira, emanaldi gehiago eskaintzeko asmorik baduzue?

Bai; gainera, oso serio hartu dugu taldeko lana kide guztiok, eta horixe da gure nahia, gure lanarekin eta emanaldiekin aurrera jarraitzea.

Eta diskoren bat argitaratzeko asmorik baduzue?

Ez; horrelakorik ez dugu pentsatu. Grabazio bat egiteko asmoa daukagu, gure taldea eta egiten dugun musika ezagutzera emateko, baina diskorik, oraingoz, behintzat, ez.

LABUR

Zapatuan jokatu zituzten pilotako finalerdiak


Olalde elkarteak antolatutako Pilota Txapelketako finalerdietako hiru partidu joan den zapatuan jokatu zituzten. Horren ondorioz, finalera iritsiko diren hiru bikote erabakita geratu ziren.

Bigarren mailan, bi bikote hauek arituko dira aurrez aurre hilaren 14ko finalean: Iturbe-Ormazabal eta Sánchez-Pagalda.

Lehen mailari dagokionez, finalerdietako partidu bat bakarrik jokatu zuten joan den aste bukaeran, eta honako bikotea sailkatu zen finalerako: Larrañaga-Oruesagasti bikote elosuarra, hain zuzen ere. Lehen mailako beste finalerdia bihar, zapatua, jokatu dute Arbuluk eta Mendizabalek Aranbururen eta Lizarralderen aurka.

Finalak datorren abenduaren 14an, zapatua, jokatu dituzte, herriko pilotalekuan, 11:00etan.

Oraingo aste bukaeran, bestalde, ez da Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako pilota partidurik jokatu, ez Antzuolan, ezta kanpoan ere.



Sagastin bide berria egiten

Aurten, uztailean, asfaltatu zuten Sagasti auzo berriko bidearen zatirik handiena, herriko jaietarako, hain zuzen ere.

Antzuola Udal Etxegin-tzako bi etxebizitzaren aurreko aldeko zatian, baina, ez zuten biderik egin. Orain ari dira bide hori egiten, eta asfalto ere botako dute.

Horixe izango da lanen lehendabiziko fasea. Hemen-dik gutxira, baina, saihesbidetik Sagasti auzora sartzeko bidea asfaltatu egingo dute./A.I.

KIROLA

PARTIDUAK

PILOTA

Oraingo aste bukaeran ez dute Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako partidurik jokatu.

EMAITZAK

FUTBOLA

Legazpi 4 Antzuola 2 (2. erreg.)
Antzuola 9 Eibartarrak 1 (Gazteak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa
Azkoitiako-Olalde (infantilak) ... 7-18
Olalde-Erniobe (eskuz nag.) ... 22-0
Olalde-Altzartarrak (paletaz nag.) 35-24

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta
industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatua
eta
barnizaketa
Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko abenduaren 5a / 121. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxe: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

MERCEDES FRANCO/BAKEAZ-KO TEKNIKARIA

“Elgetak garapen jasangarria izatea da Agenda-21 programaren helburua”

OXEL EROSTARBE

Udalaren enkarguz ingurumen ikuskaritza egin du Bakeaz enpresak. Garapen jasangarria bultzatzen duen Agenda-21 programaren barruan egin da ingurumen ikuskaritza. Mercedes Franco Bakeaz-ko teknikaria da.

Elgetako ingurumen ikuskaritza egin berri duzue. Agenda-21 programa aurrera eramateko lehen pausoa da hau. Baina zer da Agenda-21?

1992an, Rio de Janeiroko konferentzian sortu zen Agenda-21. Estatuek konpromisoa hartu zuten udalerrri bakoitzean Agenda-21 programa aurrera eramateko. Helburua da udalerrien garapena jasangarria izatea. Azken baten, udalerrien garapena bideratuko duen plan estrategikoa da Agenda-21. Pauso batzuk eman behar dira: lehenengo da diagnostikoa egitea. Hau da, udalerrian dauden ahultasunak eta arazoak zehaztea; bigarren pausoa da herritarren parte hartzea bultzatuko duen foroa aurrera eramatea. Izan ere, Agenda-21 programaren oinarria plan estrategikoa diseinuan herritarrek eta bertako taldeek parte hartzean datza; hurrengo pausoa da diagnostikoa ikusi diren ahultasunak herritarren foroan eztabaidatzea. Horrek eramango gaitu herritarrendako garrantzi handien duten ahultasunak zehaztera. Eta ahultasunak aukeratuta, neurri zuzentzaileak zehazten dituen plan estrategikoa garatuko dugu. **Plan estrategikoa diagnostikoa egin duzue dagoeneko. Zeintzuk dira emaitzak?**

Diagnostikoa hasi genuen herriko zenbait elkarte eta personarekin elkarrizketak eginez. Horren helburua zen iritzi desberdina duen jendearen artean oreka topatzea. Herriaren garapen mailaren gainean askotariko iritziak daudela ikusi genuen.

Landa-lana egin eta gero, faktoreak aztertzen hasi ginen. Aurrez erabakitako metodologia jarraituz, ingurumenean eragina



GOIBEKOKALE

zutenak eta ingurumenean eragina zutenak banatu genituen; adibidez, lurralde antolaketa, lurren birsailkapena, zaratak, hondakinak, garraioa... ingurumen fak-

toreen barnean daude. Ingurumenean, aldiz, ura, lurra, atmosfera, biodibertsitatea... hartzen dira kontuan. Faktore horiek aztertu ondoren, herri ereduak inguru-

giroarekiko duen eragina zein den ikusten da. Diagnostikoa helburua ez da gauza txarrak ateratzea, herriaren panoramika osatzea baizik; hau da, ahultasunak zein faktoretan dauden zehaztu eta konpontzeko neurri zuzentzaileak hartzea. Diagnostikoa plan estrategikoa oinarria izango da. Azken hilabeteotan diagnostiko hori egiten jardun dugu Elgetan.

Zeintzuk ahultasun topatu dituzue Elgetan?

Familia bakarreko etxeak ugaritzea ahultasunetako bat da. Garapen jasangarriaren ikuspuntutik begira hori ez da egokiena, ingurumenean eta lurren okupazioan eragiten duelako. Hirien arteko garraio aldetik, Elgetak zerbitzu gehiago behar dituela ikusi dugu. Energia berriztagarriaren gainean, EVE enpresak doan egiten duen ikerketa burutzeko, hitzarmena sinatzea ere onuragarria izango litzateke herrirako. Ahultasun bakoitzak neurri zuzentzaile batzuk behar ditu. Udalari neurri horiek zeintzuk izan daitezkeen proposatu diogu. Agenda-21 programa aurrera eramateko oinarritzko pausoa emana dago. Herritarren foroa sortu eta ahultasunei aurre egitea dira hurrengo pausok.

Helburua: Elgetaren garapen jasangarria

Bakeaz enpresa arduratu da Elgetako ingurumen ikuskaritza egiteaz. Hasiera baten, bakerako talde bezala sortu zen Bakeaz. Artikuluak idatziz eta iritzi liburuak argitaratuz armamentu-norgehiagokaren aurka egin zuten. Hasierako asmoa garatuz joan da, eta, gaur egun, bake eta ekologia ikasketa eta ikerketa zentroa da. Ekologia alorraren barruan ingurumen gaiak aztertzen dituzte.

Udalaren enkarguz herriko ingurumen ikuskaritza egiten jardun dute azken hilabeteotan. Udalerrien garapen jasangarria bultzatzeko sortu zen Agenda-21 programaren oinarritzko pausoa da ikuskaritza egitea. Ikuskaritzaren diagnostikoa batzen dira ingurumena eta ingurumenean direla-eta herriak dituen ahultasunak.

Ahultasun horiek konpontzeko har daitezkeen neurriak ere aipatzen dira. Agenda-21 programa aurrera eramateko herri mailako foroa sortzea izango da hurrengo pausoa. Foro horren lana izango da ahultasun garrantzitsuenak zeintzuk diren erabakitzea eta horiek zuzentzeko neurriak proposatzea. Udalaren asmoa da gai horren gainean interesa duten elgetarrek eta elkarteek osatuko duten foroa lehenbailehen sortzea.

Ikuskaritzaren kostua 4.927,68 eurokoa izan da. Eusko Jaurlaritzak 2.404,10 euroko dirulaguntza eman du hori aurrera eramateko.

Ikuskaritza irakurri nahi duenak udaletxean eska dezake. Eta laster, Udalaren webgunean ere egongo da.

LABUR

Gobernuz kanpoko hiru erakunde lagunduko dittue

Peruko Curahuasi-Apurimaceko eskolan ikas-programak garatzeko 812 euroko dirulaguntzia emongo dau Elgetako Udalak. Arantzazu Askasibar elgetarrak dihardu hantlanian. Atzegiri 270 euro eta Banoiari 120 euroko dirulaguntzia emotia be erabaki dau Elgetako Udalak.

Torrealdeko birpartzelaziñua egiten dihardue

Gobernu batzordiak Toledo Taldiari emon dotsa 8. sektoreko birpartzelaziño proiektua egiteko arduria. Torrealdean etxebizitzak egiten hasi aurretik derrigorrezkoa da hori proiektuori egittia. Proiektua egittiak 6.197,94 euroko aurrekontua dauka. Hiru hillabetian amaituta egotia espero dabe.

Goibeko Kultura Elkartian, loterixia amaitziar

Herriko taberna eta dendetan topau zeinkie Goibeko Kultura Elkartiak salgai jarritako Gabonetako loterixa txartelak. Erosi ez dozuonok lehenbailehen erostia dozu onena, saldu ez diran txartelak datorren astian erretirauko dittue-eta.

Asteburuetan eta jaiegunetan argixa egongo da frontoian

Gobernu batzordiak onartu egin dau frontoiko argixa dala-eta Kirolen batzordiak egin zeban proposamena. Urtarri-lletik aurrera, zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan argixa piztuko dabe, 17:00etatik 19:00etara. Umiak jolastu deixen ipiñi dabe hori zerbitzuori. Eta ezin izango da frontoitoi osua norberandako hartu.

IRAKURLIARENTXOKUA

ALKATE JAUNARI:

1) "Goibeko kultura elkarteak 14 milioi jarri behar dituela aurreikusit" dute Udala gobernatzan dutenek. Dudarik gabe, Udalak zifrak bota ditzake, baina 14 edo euro bakarria izango den Goibekoko bazkideek erabakiko dute. Hitzartu gabe dauden zifrak prentsara ateratzek ez du zentzu handirik.

2) Poztekoa da obrak urtarrilean hasi behar direla irakurtzea, baina epe askotxo entzun ditugu hiru urteko jardunean: lehenengo ferixa nagusiak, gero Gabonetarako zabalik, orain martxorako... Poztuko nintzake Goibekoko talde eragileak lan handia egin duelako proiektu hau aurrera ateratzeko. Ez dut dudarik, herritarren gehiengoa ere poztuko dela aretoari irtenbide kultural egokia ematen badiogu.

3) Kudeaketaren gaineko hainbat puntu zehaztea derrigorrezkoa da. Gure usteak irailaren lehenengo egunetan bidalita dauzkagu bai kultura teknikariari eta baita alkate jaunari ere. Galdera zerrrenda luzea eskuartean dutena erantzunik eman gabe.

4) Bazkideei, esan, beraiek direla proiektu honetan aurrera edo atzera egin behar den esango dutenak. Betiko moduan, saiatuko gara informatzen GOIBEKOKIDE barne buletinaren bidez.

Gure nahia espaloia kafe antzokia egoki programatutako ekintzaz lepo eta finantziario arazo gabe ikustea da. Diru soinu badago Jaurlaritzatik eta Aldunditik. Orain, kudeaketa negoziatu beharko dugu Udala osatzen duzuen politikookin.

Ia Elgetak kultura arloan merezi duena lortzeko modurik dugun.

IBAN ARANTZABAL
Goibekoko presidentea

INGURUGIROA

Alberto Friasek Elgetan energia alternatiboa garatzeko dauden aukerak azalduko ditu

O.E.

Datorren egunean, hilak 12, herri mailan energia alternatiboak garatzeko dauden aukeren gaineko berbaldia izango da liburutegian. Eguzki ingurumen taldeko bozeramaile Alberto Frias izango da hizlaria. Berbaldia arratsaldeko zazpietan izango da.

Maya ingurumen taldeak antolatutako berbaldian energia alternatiboen gainean jardungo du Alberto Friasek. Elgetan energia mota horiek garatzeko dauden aukerak ere aztertuko dituzte.

Maya ingurumen taldeko Rebea Uberak esan digu berbaldia zeren gainean izango den: "Energia alternatiboaren gainean Europako eta Estatuko legeek diotena azalduko du Alberto Fri-



ARGAZKI PRESS

Energia alternatiboen gainean jardungo du Alberto Frias Eguzkiko bozeramaileak.

sek. Energia mota horiek aurrera eramateko dauden dirulaguntzen berri ere emango du".

Berbaldiaren asmoa da energiaren eraginkortasuna neurtuko duen diagnostikoa zelan egin aztertzea eta Elgetan herri mailako energia agentzia sortzea.

UDALAK EGIN DEZAKEENA

Energiaren erabilera dela eta, Udalak hiru funtzio bete ditzakeela esan digu Rebeak: "Udala energia kontsumitzailea izan daiteke, gaur egun dena. Apustu aurrerakoia eginez, ordea, energia ekoizlea eta kudeatzailea izatera hel daiteke. Maya ingurumen taldekoon iritziz, apustu hori egin behar luke Elgetako Udalak".

Beste herri batzuetan egin duten moduan, elkarrekin batu, eta herri mailako energia agentzia sortu nahi du Mayak.

KIROLA

Ubera eta Bengoetxea, finalera bidean

O.E.

Zapatuan, hilaren 7an, DV Txapelketako finalaurrekoak jokatuko dira Aizarnazabalen. Xabier Ubera eta Jon Bengoetxea finalerako txartela lortzeko asmoarekin irtengo dira frontoira. Euren helburua lortzea, ordea, ez da erraza izango, txapelketa bikaina egiten diharduten Martínez de Irujo eta Zabala izango dira-eta euren aurkariak.

Lau pilotarietako dute maila parekoa da; horregatik, zaila da gerta daitekeena aurreratzea. Urduritasunak etxean laga eta hasiera-hasieratik partiduen bila irten behar dira Xabier eta Jon. Kontuan izan behar dute, baina, final-laurdenetan jokatuko diren partidu gehienak luzeak izan direla. Eta zapatukoa ere partidu

luzea izango da, seguru asko. Hori dela eta, amaierara sasoi puntu onean heltzea garrantzitsua izango da.

Zapatuko pilota jaialdia 17:00etan hasiko da. Finala jokatuko azken pausoa geratzen zaio Uberak eta Bengoetxeak osatutako bikoteari.

GABONETAKO PILOTA TXAPELKETA

Aurten ere Gabonetako Pilota Txapelketa antolatu dute Guraso Elkarteak eta Ozkarbik. Dagoeneko 31 neska-mutikok eman dute izena. Txapelketa abenduaren 23an hasiko da. Aste osoan kanporaketak jokatuko ondoren, abenduaren 31n izango dira finalak. Izena emateko epea bukatzekotan da, eta oraindik eman ez dutenek udaletxean dute horretarako aukera.



Gabonetako Bolo Txapelketia, gertu

Aurten be Gabonetako Bolo Txapelketia jokatuko da abenduan zihar. Abenduaren 7xan, 14an, 21ian eta 28xan izango dira kanporaketak. Honetan egunotan, gabeko hamaiketan hasiko dira tiradak. Kanporaketa bakoitzian diru sarixa izango da lau lehenengundako. Txapelketan zihar erregularrenak diranendako be sarixak izango dira. /O.E.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA



RECYDE, S.A.

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR

ER

Enpresa
Erregistratua

ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

BOLATOKI

Taberna

Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak,
ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Gazte koadrila, 1956ko
San Martzialetan

A tzean geratu da San Martzial Eguna. Zalantza barik, gurean ondo baino hobeto errotutako jaieguna da, urtetik urtera herritar ugari batzen dituen. Alboko argazkia 1956ko San Martzialetakoa da.

Erretratuan San Lorentzoko eta San Juan auzoko gaztetxo batzuk agertzen dira. Argazkia, esan bezala, duela 46 urtekoa da, eta bertan azaltzen diren mutilek 15 bat urte izango zituzten orduan. Ezkerretik eskumara:

Goian: Miguel Etxaniz, Gaspar Elkoro eta Juanito Beitia.
Makurtuta: Joxe Mari Iñarra, Jesus Mari Elkoroberezibar eta Pedro Garmendia.

Argazkia: Gaspar Elkoro



ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK


BERGARA

Martzial
Agirre kalea

Ezkerreko argazkian Espoloi atzealdeko lursaila agertzen da, Martzial Agirre eta Arrizuri kaleetako etxebizitzak egin aurretik, hain zuzen. Etxebizitza horiek 80ko hamarkadaren amaieran hasi ziren eraikitzen. Argazki zaharrekin askotan gertatzen den moduan, kosta egiten da 1988ko irudian inguru hura gaurko egoerarekin errekonozitzea. 14 urte igaro dira ordutik hona.



1988 Martzial Agirre eta Arrizuri kaleak egin aurretiko irudia (Begarako Udal Agiritegia, Fabian Goirizelaia Bilduma).



2002 Espoloi inguruan etxebizitza ugari eraiki zituzten 80ko hamarkadatik aurrera. Frontoia ere egin zuten bertan.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53



ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tf. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.



IPARRORRATZA...

Goazen bidaiatzera!

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

Martitzenero,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Julen Aranguren

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

